

ESPAINOLAK ETA EUSKALDUNAK

Joxe Azurmendi,
Elkar argitaletxea, Donostia, 1992

Liburuaren "aurre-oharreen" autoreak berak ondoko deskribapen-justifikazio hau darabil: "Sanchez Albornozen deklarazio batzuek sortarazi zuen oinarrizko testua eta beste mila zapi eta adabaki gehitu zaio gero. Ikerketa bat halere ez da. Jolas bat, agian: ez, ordea, gogoetatxo bat ere izateko guztiz asmo gabe. Eta haserre bada, umorez ere bai: gure ilustratzaile eternoak atzera ilustratzeko ez bada -euskaldunentzat idazten dut- gure barregileei barregiteko balio diezagun pixka bat ausaz, arratsalde libreetako irakur orduetan".

Norbaitek esan dezake, zer axola ote dio izen potolo bat eskegiz eta marko hertsia eta itxi batean sartuz gero idatziak klasifikatu beharrak? Baina, horrela da! Joe, ez da kasualitatez unibertsitatean lanean ari, eta badaki izendatze horiek kario ordaintzen direla eskolakeriatan beste ezertzan mugitzen ez dakitenen artean. Guzti honetan halere bi neurri erabiltzen dira. Bata hemeretzigarren mendeaz aitzineko idatzi klasikoentzat, eta bestea geroztik giza eta gizarte-

-jakintzak hainbat ardaskatan zatiturik enborrik gabeko bailiran direnentzat.

Gaur egun, ordea, unibertsitate-alarrean eta kanonetan dabilenak jakin badaki "curriculum" gora-beherak medio, konkurrentziak kentzeko laster bilatzen dela arerioa auzokoaren alorrean nahastuaren akusazioa jasoko balu bezala dihardu. Formalitateak formalitate, ordea, obra baten balioa besterik izaten da, noski.

"Uztaro" gure aldizkaria, alde horretatik, ohartunki atipikoa dugu. Sortze beretik gaur egun "normatibizaturik" dagoenaren aurka desafioa jaso izan baitu" giza eta gizarte-jakintza desberdinen plata-forma eta gurutze izaten saiatzen baita, alegia. Giza eta gizarte-jakintza desberdinek landurikoa enbor bakarreko ikuspegiak bideratzen baitugu.

"Espainolak eta euskaldunak" obra, bete betean guk defenditzen dugun kultur ereduaren lekuko ikusten dugu. Edukina, ezagutza antropologikoen, filologikoen (hizkuntzalaritza orokorki

ere), historiko-filosofikoen bidez literatur saio bikain bilakatzen da.

Obrari izenburutzat "Espainolak eta Euskaldunak" eman bazaio ere, besterik berdin jaso zezakeen. Elkarrizketa, polemika eta dialektika horretan partaide baitira greziar idazleetatik hasi eta Italiatik eta Frantziatik zehar "Hispania" espazialera arteko hainbat eta hainbat. Gaiaren hariari jarraiki liburuak sei atal nagusitan mugarik gabeko firuen jokoak gauzatzen du. Euskaldunak, erromanizatu gabe hutsak; mito zaharretik ipuin berrira; errenazimentuetako ideologietan; inperioaren morroi; nazio zahar bat modernia propio gabe; zer egin? hara sei atal nagusien izenburuak.

Euskarari eta gainerako hizkuntzei dagokienean, aberats bezain ulerkorra dela esan behar dugu, bat-batean. Euskara batua eta hainbat euskalki

elkarrekin goxo eta konfusio gabe uztartzen dira. Bakoitzak bere toki jakina hartzen du. Bata ez da bestea baino gutiago ematen. Batua da enborra eta euskalkiak bere aldi aldiko kimu aldi berean.

Nahiz testuak eta aipamenak erruz ageri, hizkuntza originaletatik sortu direnean, obraren testuingurura aldatuak, ez dute irakurlegoa okaztatzen. Kulturarik baldin badago, noski. Zeren hau falta bada, irakur ezinezko bilaka baitaiteke. Honek argi jartzen du ere, literatura, hizkuntzaren forma eta jokoen konbinaketara ezin dela mugatu. Aitzitik kultura arazo dela funtsean!

Hainbat ikasle gazteri kulturarako bidea erakusteko eta hizkuntzen balioaz ohartarazteko aproposa eta egokia deritzogu. Irakurleak luzaz izan ditzala!

Jokin Apalategi